



SCORE Klima Egokitzapenerako Prestatze Eskola – 2. edizioa

Komunitatean Oinarritutako Kostaldearen Monitorizazioa

AGENDA

1. Eguna – Komunitatean oinarritutako kostaldearen monitorizazio online ikastaroa	Martxoak 20 11:00-12:30 Online
11:00 – 11:10	SCORE proiektuaren sarrera (ingelesez)
11:10 – 11:30	Hiritar zientzia jarduerak eta ekosistemetan oinarritutako ikuspegiaren arteko lotura (ingelesez).
11:30 – 12:30	<p>CCLLen areto bananduak:</p> <ul style="list-style-type: none">Izenburua: Klima-aldaketara Egokitzea eta Hiritar Zientzia Kostaldeko Hirietan.Deskribapena: SCORE proiektuaren helburuetako bat herritarrak, Hiritar Zientziaren bidez, kostaldeko hirietan klima-aldaketaren arriskuen eta egokitzapen neurrien kudeaketan inplikatzeko da. Aurkezpen honetan, proiektuko partehartzaileen hiru kasu praktiko azalduko dira (Benidorm, Vilanova i la Geltrú eta Oarsoaldea) eta joko interaktibo batekin jarduerak bat egingo da, non parte-hartzaileek klima-aldaketaren aurkako konponbide egokienak proposatu beharko dituzten.Hizlariak:<ul style="list-style-type: none">Ignacio Toledo Sepulcre doktorego-ikaslea da Alacanteko Unibertsitateko (UA) Kostaldeko Ingeniaritza arloan. Ingeniaritza Zibilean Graduatua da eta Bide, Ubide eta Portuetako Ingeniaritzan Masterra du Alacanteko Unibertsitatean. UAK SCORE proiektuan doktoratu aurreko ikertzaile gisa lan egiteko kontratatu du, honako funtzioak betez: muturreko gertaera meteorologikoen eta itsasertzaren bilakaeraren GIS bidezko mapaketa, Benidorm hirian garatutako estrategia jasangarrien diseinuan eta ezarpenean lagunduz, bilera eta mintegiak prestatu eta haietan parte hartzea, eta



	<p>informazio dokumentalaren prestaketa eta kudeaketa.</p> <ul style="list-style-type: none"> - Mar Riera Spiegelhalder Ekonomialaria da eta Toki-Garapeneko Masterra du Valentziako Unibertsitatean. Klima-aldaketaren eta Ingurumen-ekonomiaren arloko aholkularia eta ikertzailea ENT Environment & Management erakundearen. SCORE proiektuan, besteak beste, naturan oinarritutako egokitzapen-neurrien azterketa sozioekonomikoak garatzen ditu, kostu-onura analisia eta irizpide anitzeko analisia aplikatuta, ikuspegi parte-hartzaileago batekin. Ereku horretan doktorego-tesia garatzen dabil. Ikerkuntza eta unibertsitateko irakaskuntza konbinatzen ditu ekonomia zirkularreko graduondoko programetan, garapen jasangarrian eta ekintzailertzan. - Xabier Sesma Korta Jasangarritasun eta Energia teknikaria da Oarsoaldea eskualdeko Garapen Agentzian. Ingurumen Zientzietan Gradua du Urrutiko Hezkuntzako Unibertsitate Nazionalean (UNED) eta Nekazal-Ingurumen eta Nekazal-Elikadura Zientzietan Masterra Madrilgo unibertsitate Autonomoan (UAM). Gaur egun Geografia eta Historiako Gradua ikasten du. SCORE proiektuan, Oarsoaldea CCLLko talde nagusiko kide izanik, hainbat zereginetan parte hartzen du, hala nola, datu eta informazio bilketa, edukien sorrera, intereseko eragileekin komunikatzea edo ekitaldian antolatu eta haietan parte hartzea.
--	---

2. Eguna – Minecraft Gazteen Konpromisoa	Online
Martxoak 22 12:00-17:00	Bat egin SCORE online Minecraft tailerrarekin gure etxeak babesteko ingurumena errespetatzen duten bideak diseinatu eta etorkizunerako kostaldeko hiriak hobetzeko! Jokalariak elkarrekin lan egingo dute kostaldeko hiri batek jasaten dituen mehatxuei aurre egiteko Ekosistemetan Oinarritutako Egokitzapenak erabiliz.
Martxoak 21 – 29	Zerbitzariak irekita jarraituko du. Sartu partidara noiznahi!
3. Eguna – Tokiko jarduerak	Udaberria Oarsoaldean
Udaberrian zehar	SCORE proiektuko Oarsoaldeako hiritar zientzia jardueren inguruko dokumentu audiobisual baten aurkezpena.